

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2012ko irailaren 12a. IX. urtea. 2.398. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Ricardo Ugarteren obra aztertuko dute hitzaldi-tailer baten bidez

Tolosako Eskulturastean barruan egingo da saioa, gaur, eta eskultoreak berak emango du; Box.A elkarteak dinamizatuko dute **o2**



Box.A elkartearen lana, Eskulturastea iragarri; atzean Ricardo Ugarterek Gipuzkoako Artxibo Orokorren aurrean duen eskultura ikus daiteke. IGL

L. TERRADILLOS

→ **Herriko merkataritza sustatuz.** Ibarra merkatarien elkarteak herriko saltokiek duten «gertutasuna, goxotasuna eta garrantzia» nabarmendu asmoz, zozketak, dinamizazio ekitaldiak eta gazteei zuzendutako argazki lehiaketa bat antolatu dituzte *Besarka ezazu Ibarra merkataritza* lelopean. Zozketak hilaren 23an egingo dituzte. **o7**

Ekitaldi eta ikastaro ugari antolatu ditu ikasturterako Zizurkilgo Udalak

Irailaren 21ean bukatuko da ikastaroetan izena emateko epea; Villabonako bigarren eskuko azokarako materiala udaletxean utzi daiteke **o4**

Eskaintza zabala prestatu du Ibarra Belabieta kiroldegiak

Multifitnes, pilates, yoga, cycling, tai-chi, bosu-gap, gimnastika erritmikoa, eta pilota egin ahal izango dira, besteak beste **o6**

Sukaldaritzan murgiltzeko aukera emango du Alegiako Udalak

Jaki ugari egiten ikasi ahal izango da urriaren 22tik abenduaren 10a bitarte; izena kultur etxean eman behar da **o6**

Nik euskara

MATRIKULA

IRAILA 3-14
09:00 - 13:00 / 16:00 - 19:00

AITZOL UDAL EUSKALTEGIA
Rendilla 34-B, 3.a
20400 TOLOSA
943651006 - 943652343
www.udal-euskaltegia.net
atxibetolosa@udal-euskaltegia.net

Ricardo Ugarteren obrari begirada

Eskulturasteen Ugarte eskultoreak bere lanei buruz ariko da, gaur, Box.A elkarteok dinamizatuta

Imanol Garcia Landa

Ricardo Ugarte eskultorearen obrak izango dira hizpide nagusi gaurko Eskulturastearen hitzaldi-tailerrean. 20:00etan hasiko da, Topic zentroan, *Eskultoreak bere ideiak eta lanak landuko dituen tailerra* izenburupean. Ugarteren emaztea den Julia Otxoak eskulturen inguruan egindako poemak irakurriko ditu eta hitzalditailerrearen dinamizazioa Box.A elkarteok kideek egingo dute.

Ugartek Tolosan *Oroimenaren Gaztelua* izeneko eskultura du, Gipuzkoako Artxibo Orokorra- ren aurrean. Eskultorea izateaz gain, margolaria, grabatzailea, argazkilaria eta idazlea da, eta Eskulturaren Euskal Eskolakoa, Jorge Oteiza, Eduardo Txillida, Nestor Basterretxea eta Remigio Mendiburuarekin batera.

Box.A elkartetik azaldu dutenez, gaurko hitzaldi-tailerrean Ugarte bere obrari buruz ariko da, eta beraien «debatea sortuko» dute, beste ikuspuntu bat jarritz. Vanessa Alzate Box.Ako kideak azaldu duenez, hitzaldi-tailerra dinamikoa izatea da asmoa, eta horretarako Ugartek esaten due-



Ricardo Ugarteren *Oroimenaren Gaztelua* obraren parte bat, eta Box.A elkarteok Eskulturastea iragartzen duen konposizioetako bat egiten. IGL./BOX.A

na «ezbaian» jartzea. Aurretik elkarteok eskultorearen obra ikertu dutela gaineratu dute.

Hiru konposizio

Eskulturasteako antolatzaileak jarri ziren harremanetan Box.A elkarteokekin, bi kultur eragileek batera parte hartzeko. «Guri ondo iruditu zitzaigun, azken finean hori ere bilatzen ari garela», dio Ibai Luque Box.A elkarte-

ko kideak. «Beste belaunaldi batzuekin ere lan egitea bilatzen genuen, eta Eskulturastea antolatzen ari diren artistak oso interesgarriak dira». Hain justu, Alzatek gaineratu duenez, «ez genuen elkargunerik eta Eskulturasteak horretarako aukera eman du, eta baita hemen dugun espazio irekitzeko ere». <

Antolatzaileek ez zuten nahi kartelirik egin Eskulturastea ira-



gartzeko, beste hainbat kartelen artean galduta geldituko litzatekeelako. Horrela, Box.Akoengan jo zuten, eta hasiera batean graffitiak egiteko eskatu zieten. «Graffitia arte gisa ikusten dutela eta horrekin zerbait egitea proposatu zuten», dio Luquek. «Guk eztabaida izan genuen eta azkenean pentsatu genuen konposizio monokromatiko bat egitea, zakarretatik hartutako elementuekin,

eta tipografia arrunt bat erabiltzea».

Ariketa «espontaneo» izan dela azaldu du Alzatek: «Ikusi genuen zer material genuen, hiru taldetan banatu eta konposizioak egiten hasi ginen». Hiru konposizio egin dituzte; horietako bat Trianguloa plazan dago, bestea Gipuzkoako Artxibo Orokorra- ren aurrean, eta bestea Dama Berdearen ondoan.

Box.A elkarte, espazio irekia

San Esteban auzoko pabilioi baten dute lokala elkarteok; kultura zabaltzea da bere asmoetako bat

I. Garcia Landa

2009an hasi zuen ibilbidea Tolosan Box.A elkarteak. Egun 15 kide inguru ditu eta nahi duenak bertan parte hartu dezake. «Irabazi asmorik ez duen elkarte da, eta bertan parte hartu dezake gauzak egiteko nahia duen edonork», dio Ibai Luque elkarteok kideak.

San Estebango auzoan, udal langileek erabiltzen duten pabilioiaren alde batean dute espazioa. Bertan dute tailerra. «Espazio ireki bat dago gauzak egiteko», dio Luquek. «Garrantzitsua da ere elkarbanatzeko espazio bat dela, beste batzuekin egoteko eta sortzeko», dio Vanessa Alzate el-

karteok beste kide batek. «Konpromisoa ere eskatzen dugu. Ostiralero bilerak egiten ditugu, hileroko 10 euroko kuota ordaintzen dugu eta ekintza kolektiboetan ere parte hartzea eskatzen da», gaineratu dute.

Bileretan zer proiektu dauden martxan jartzen da mahai gainean, zer unetan dauden, nola ikusten dituzten, eta espazioa bera ere zer egoeretan dagoen. Horrez gain, bakoitzak dituen proiektu pertsonaletarako laguntza eskatze ere balio dute bilerek.

Luquek dioenez, «Tolosan gabezia bat dago kulturaren aldean. Kultur etxeko tailerrak daude, eta hortik aurrera sormenerako ez dago espaziorik. Niretzako ezagutza kolektiboa lehentasunezkoa da, eta hemen gaudenok egiten duguna elkarbanatu egiten dugu». Bestalde, kalean mugimendua sortzeari garrantzia ematen diote.

Ez dute «arte konbentzionalean» sinisten. «Nolabait esateko,

jarrera kontua da», esan du Alzatek. «Ezarrita dagoena ezbaian jartzea».

Kultura zabaldu nahi dutela diote, eta adibide gisa Olatu Talak egitasmoaren barruan egindako hiri baratzei buruzko tailerra jarri dute. «Uste dugu elkarbanatzeko proiektu bat dela. Gironan egin zuten eta hango koordinatzaileetako bat ekarri genuen esplikatzeko prozesua», dio Luquek. «Kontua ez da niretzako bakarrik egitea, baizik proiektuak zabaltzea, erakustea nola egin den, eta gero ikusten badugu, esaterako, hiri baratzeen proiektua dela eta herrian edukiontzi batzuk baratze bihurtuta, hori da nahi duguna», gaineratu du Alzatek. Zabaldutako nahi dute beste ideia bat da bakoitza gai dela nahi duena egiteko. «Dena ikasten da. Dena egin daiteke. Zer nahi dugu egin? Hau? Bada, hasi, ez dago mugarik», dio Luquek.

Aurrera begira, hil honen bukaeran erakusketa bat jarriko



Hiri baratzeen proiektuko edukiontzi bat. JOSEBA MERCADER

dute Aranburu jauregian. Bestalde, beheko espazioa utzi die udalari. «Eztabaidatzen ari gara zer

egin dugun bertan; zehazteko dago zer egingo dugun, baina hurrengo hilerako martxan jarri nahi dugun», esan du Luquek.

Irudia ◯



BELTZEZ JANTZITA MURRIZKETEN AURKA

Tolosako Osasun zentroko eta Gizarte segurantzako langileek ostiraleroko hitzordua dute azken asteotan: murrizketen aurkako protesta egitea. Beltzez jantzita, elkarretaratzeak egiten dituzte beren lantokien aurrean; 11:00etan biltzen dira Gizarte Segurantzako langileak, eta 13:00ean

Osasun zentrokoak. Datorren irailaren 26ko greba orokorrera bitarte, langileen artean sortu den egitasmo honekin jarraituko dutela azaldu dute: «Gure lanari bakarrik ez, herritarrei eurei ere zuzenean eragiten diete murrizketa hauek gutiek». HITZA/I. TERRADILLOS

Jarindo mendira irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak

I. Urkizu

Tolosako Alpino Uzturre elkarteak gaztetxoentzako mendi irteera antolatu du. Jarindora (896m), datorren irailaren 16rako. Kruzeta mendatean (Araba) hasiko dute txangoa, eta Legutition bukatu.

San Frantzisko elizaren paretik abiatuko dira, 09:00etan, eta parte hartu nahi duten gaztetxoek 5 euro ordaindu beharko dute; helduek, berriz, 10 euro.

Izena emateko, alpinouzturre@hotmail.com helbidera idatz daiteke, edo 665 74 82 99 telefonora deitu.

Ramon Saizarbitoria izango da, bihar, Galtzaundi Irakurle Taldean

I. Urkizu

Galtzaundi Irakurle Taldearen ikasturteko lehen saioa, Ramon Saizarbitoria idazlearekin izango da, bihar.

19:30ean hasiko da saioa, kultur etxean, eta idazle donostiarrak argitaratu duen azken eleberriaz ariko da bertaratuekin.

Martutene izenburua du, hain zuzen ere, bere azken nobelak, eta kritikaren arabera, idazlearen lanik intimoena da haxe. Donostian kokatuko ditu pertsonaia, eta Euskal Herriak bizi duen aro berria izango du hizpide.

Kilometroak jaiaren aldeko saskibaloi partida, Usabalen

I. Urkizu

Gipuzkoa Basket saskibaloi taldea, Valladolideko Blancos de Rueda taldearen aurka ariko da, gaur, 19:30ean, Usabal kiroldegian.

Datorren urriaren 7an Andoaingo ospatuko duten Kilometroak festaren alde antolatutako partidada da, eta sarrerak salgai daude jada, 5 euroren truke. Bide Bide tabernan nahiz Andoaingo Aita Larramendi ikastolan. Antolatzaileek dei berezia egin diete saskibalozaleei eta euskaltzaleei, bertaratzeko.

Ñiiii..eta zast!!!!



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga
Biologoa

Gauerdia da, lo seko gaude, bat-batean gure lozorro gozoa «ñiiii!!!» batek apurtzen du. Gure tinpanoen barreraino sartzen den zarata da eta gugana dator. Ilunpe gorritan gaude eta ezin argia piztu alboko esnatu nahi ez badugu. Zarata igortzen duen izaki bizidun hegalaria gure belarri eta sudurraren inguruan hegan dabilela nabari dugu, lur hartu nahi duen espaziotzi baten antzera. Orduan, maindire azpitik besoa atera eta zomorronazkagarri hura akabatzen saiatzen gara. Gure buruari lauzpabost zaplasteko eman ostean, badirudi zarata isildu dela eta berririo ametsen mundura murgiltzera goazela... Zazi!!!

Zuetako asko sentituko zineten arazo honekin identifikatuta, batez ere, uda partean, izan ere, gaueko bisitari ohikoak ditugu gure kontura elikatzen diren eltxoak.

Eltxoak intsektuak dira, eu-
liak, txingurriak, matxinsaltoak
eta kakalaridoak bezala, baina
eltxoak mundu osoan eta kultura
guztietan izan dira gaizki ikusiak,
gure odolaz elikatzen diren izaki-
kai baitira.

Gure Euskal Herri maitean eltxo arrunta da ohikoena (*Culex pipiens*). Zelebrea den arren, espezie honetan arrek eta emeek dieta desberdina dute. Arrek zuhaitzen izerdia eta fruituen zukua xurgatzen duten heinean, emeak, ugaztun edo hegaztien odol bero eta gozoaz elikatzen dira, batez ere, arrautzak ipintzeko garaia iristen zaienean.

Amak egindako babarrunak kategoriako elikagaiak diren arren, odola ere elikagai bikaina da, elikagai mardoa eta merkeak baitaizka. Hala ere, neuk nahiago dut eltzekada babarruna, aza eta saihekiarekin. Tolosaldeko geneak ote dira?

Emeak bere biktima atzeman duenean, isil-isilik gerturatu eta eztena sartzen du, ostean ipurdi inguruko muskuluekin odola xurgatzen du, eta ase denean, nolahalagan hegan joaten da. Esperientziagatik diot, zenbait eltxori kosta egiten zaiela hegan egitea odolez lepo doazenean!

Behin emea odolez puztu denean, ur geldoko eremu batera joan-

go da arrautzak ipintzera. Putzua eta ibaiak leku egokiak diren arren, asko atsegin zaie neumatikoen barruko uretan errutea. Bertan itzala, ur geldoa eta berotasuna baitago; kumetxoak hazteko leku egokiena da. Ez da harritzekoa beraz, neumatiko biltegien alboan bizi direnek, eltxoen hozkada gehiago jasatea.

Arrautzetik jaioko den eltxoaren beldarra edo larba, urtarra da, uretako mikroorganismoen elikatuko da, eta garaia iristean, urazalera atera eta bere kumetxo jantzia utzi eta heldu hegalaria moduan aldentuko da bere jaiotza lekutik.

Eta honela zikloa itxiko da, eta udan eltxo emeek zu eta ni bezalako odol gozoa duten izakiengana joko dute, gure petrolio gorriaren bila. Dirudienez, pertsona batzuei eltxoek gehiago erasotzen diete. Odol gozoagoa ote dute? Litekeena da, odol kalitate hobea izatea eta eltxoek hau nolabait nabaritzea; edo agian izerdiaz igortzen diren konposatu kimiko erakarriak izatea eltxoentzat. Dena dela, eltxoen aurkako borroka urtean zehar milioika euroko irabaziak sortzen ditu; gaur egun dagoen intsekturik errentagarriena da, labezomorro eta txingurriekin batera. Intsektuei diogun beldur irrazionalak atera behar ote gaitu krisititik?

Eta biologoa nahizenez, eta intsektuak asko atsegin ditudanez, hemen hausnarketarako gai bat. Merezki ote du gauetan gure logela konposatu kimiko toxikoez bete-
tzeak, urtean hamar eltxoen hozkada ez jasateagatik? Zorionez gure eltxoek ez dituzte ekuatore inguruko herrialdeetan transmititzen dituzten gaixotasn ilgarriak transmititzen, eta gure eltxo maiteen hozkadak ez dira Mediterraneo inguruan bizi den tigre-eltxo (*Aedes albopictus*) bezain mingarriak. Ez baduzu zure logelan eltxorik eduki nahi, ipini armiarma bat, bera arduratuko da gaueko bisitariak izutzeaz.

Konturatuko zinetenez, berririo bueltan da, gure ekokulturaren txoko xume hau. Aurten ere izango dugu zer kontatua, baina proposamenak ez dira soberan izango, beraz, idatzi lasai eta proposatu, zuek baitzarete zutabe honi zentzua ematen diozuenak: bioaniztasunetik@hotmail.com.



Culex pipiens eltxoa. HITZA

Ikasturte berriko ikastaroetan izena emateko aukera zabalik, Zizurkilen

Aisialdi gida lau ataletan banaturik dago; irailaren 22an euskararen aldeko herri krosa egingo dute

Asier Imaz Zizurkil

Zizurkilgo jaiak amaitsu baldin badira ere, aisialdiak ez du atse-denik hartuko, izan ere, irailera-ko hainbat ekitaldi antolatu ditu Zizurkilgo Udalak, herriko eragi-

↓ **'Zerote?'**

MUGIKORTASUN IRAUNKORAREN ASTEA

■ **Irailak 22, larunbata.** Eskualdeko bigarren eskuko azoka Villabonako Berdura plazan, 10:30etik 13:00etara. Salgai-jarri nahi den materiala udaletxera eraman behar da.

■ **Irailak 23, igandea.** Bizikleta bira. Irteera 10:30ean izango da, Ikaztegietatik eta Asteasutik. Anoetako plazan elkartuko dira. Tolosaldeko bidgorrietan zehar ibiliko dira txirridulariak.

KULTURA

■ **Ikastaroak:** Ikasturtea urriaren 1ean hasiko da, eta ekainaren 21ean amaituko da. Matrikula epea irailaren 21ean amaituko da.

Atxulondo kultur etxean

■ Haurrentzat euskal dantzak.

le eta elkarteren laguntzarekin. Hilabete honetako egitaraua lau ataletan banatu dute: Mugikortasun iraunkorraren astea 2012, kultura, euskara eta bestelakoak.

Ikastaro eskaintza oparoa

Kultura atalaren barruan, ikastaro eskaintza zabaldu osatu dute zizurkildarrek. Gehienak Atxulondo kultur etxean antolatu dituzte.

Ikasturtea urriaren 1ean hasi eta ekainaren 21ean amaituko

da, eta matrikula epea irailaren 21ean bukatzen da. Izen emateak Zizurkilgo Aurrera Plazako udal bulegoetan egin behar dira, edo 943 69 24 95 telefono zenbakira deituta.

Izena ematerako unean matrikularen ordainketa egin beharko da, edo udaleko kontu korrontean ordainketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da; izen emate orria ere bete beharko da.

Ikastaroetan baja eman nahi dutenek, idatziz eskatu beharko dute urriaren 24a baino lehen.

■ Helduentzat patchwork, yoga, pilates eta sabel dantza.

■ Jubilatuentzat gimnasia, jokin-tza eta eskulanak eta yoga.

■ **Iriarte kultur etxean**

■ Eskulanak, helduentzat gimnasia eta bertso tailerra.

■ **Ikastaro motzak**

■ Ikasturtean zehar, eta Villabonako Udalarekin bat eginik, Zizurkilgo Udalak hainbat ikastaro antolatuko ditu: sukaldaritza, capoeira, edergintza... Informazio gehiago Aurrera Plazako bulegoetan, 943 69 24 95 zenbakira deituta.

■ **Loatzo musika eskola**

■ Informazio gehiago

943 69 1857 zenbakian.

EUSKARA

■ **Ikastaroak.**

■ Euskalduntzea: Zizurkil eta Villabonako udalek herrian ber-

tan euskara ikasteko aukera eskainiko dute, beti ere, taldeak osatzen badira.

■ **Alfabetatzea:** asteazkenetan, 19:00etatik 20:30era. Prezioa 70 euro.

■ **Herri krosa euskararen alde.**

Villabonako Udalarekin elkarlanean eta Kontseiluak zuzenduta, irailaren 22an. Antolatzaileak Arkamendi eta Zurbeltz elkar- teak. Kamisetak, opariak, animazioa...

BESTELAKOAK

■ **Irailak 29, larunbata.**

XIV. Donostia Hiria Rallya. Ibilbidea Zizurkil goiko plazatik abiatuko da bi txandatan, 14:30ean lehena eta 17:30ean bigarrena. Errepidea 13:30ean itxiko da. Informazio gehiagorako ondorengo webgunea zabaldu dute: www.eaf-fva.net.

Barreterapia eta akrobazia eskolak antolatu dituzte

Ikastaroak eta, oro har, urteko ekimenak egiteko Pipirilagun bila ari dira Asvinenea zentroan

A. Imaz Aduna

Adunako Asvinenea arte eszenikoan laborategiak ikasturteari indartsu ekin dio. Alde batetik, barreterapia ikastaroa antolatu dute Adunako egoitzan, eta beste- tik, tela eta trapezioko aire akrobaziaren ingurukoa.

Aitor Navarro izango da barre-terapia ikastaroaren arduraduna. Irailaren 15ean eta 16an, larunbatean eta igandean, egongo da Navarro Asvinenean, 11:00etatik 14:00etara. Ikastaroan izena emateko 627 98 55 68 telefono zenbakira deitu behar da, edo asvineneaszkola@gmail.com helbidera idatzi. Matrikularen prezioa 45 eurokoa da.

Tela eta trapezioko aire akrobazia ikastaroa irailaren 18tik 20ra bitartean izango da Asvinenean, 18:00etatik 21:00etarako ordutegian. Eneritz Otegi eta Virginia Maffassanti izango dira irakasle-

ak, eta matrikula 50 eurokoa da. Informazio gehiagorako edo izena emateko, 689 79 24 69/ 605 41 08 80 telefono zenbakira deitu behar da, edo ondorengo helbidera idatzi beharko da: asvineneaszkola@gmail.com-era.

Asvineneatik azaldu dutenez, akrobazi ikastaro hauek ametsak egi bilakatzeko aukera dira: «Askori amets bat iruditzen zaio hegan egitea, ezinezkoa, pentsaezina... hemen proba egitera gonbidatzen zaitugu, jolastera, ezinezkoa errealitate bihurtzeko, zeruan ibiltzera, gurekin leku ezberdin batean topo egitera...».

Asvineneako Pipirilaguna

Ikastaro hauek eta ikasturte berriko proiektu guztiak aurrera ateratzeko, Asvineneako kideak laguntza bila dabilta. Horretarako, Pipirilaguna ekimena jarri dute martxan. Hilabetean 5 euroren truke izan daitezke Asvineneako Pipirilaguna. Ordainetan, Adunako egoitzan antolatzen diren emanaldi guztietan sarrera ez da ordaindu beharko.

Asvinenearekin zuzenean harremanetan jartzeko, asvinenea@gmail.com helbidera idatzi behar da.

Erniora joateko irteera antolatu dute Anoetan

Euskal Jaiak eta Kultur eta Kirol Astea antolatzeko bilerak egingo dituzte hurrengo astean

A. Imaz Anoeta

Anoetako Udalak hainbat deialdi luzatu dizkie herritarrei, parte hartzea bultzatzen jarraitzeko. Udalak, gazte asanbladak eta kirol taldeak antolatuta, irailaren 16an, igandean, Erniorako joango dira herritarrek elkarrekin. 09:00etan abiatuko dira Anoetako plazatik, eta 18:00ak aldera itzuliko dira. Igoera Hernialdetik egingo dute, eta jaitziera Alkizako bidetik. Ernio gainean ere hitzordua jarri dute, beste bideetatik joango diren herritarrekin bertan elkartzeko. 12:00etan gailu-

rrean elkartu eta Zelatunera jaitziko dira denak batera.

Euskal Jaiak egiteko, festa antolatzeko hurrengo bilera irailaren 17an, astelehenean, izango dela jakinarazi du udalak. Udaltxean 19:00etan elkartuko dira, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte bileran parte hartzera.

Kultur eta Kirol Astea antolatzeko bilera ere egingo dute Anoetan, irailaren 18an. Oraingo honetan ere, batzarra udaletxean izango da, 19:00etan.

Azkenik, 2013ko udal egutegia osatzeko argazki lehiaketan antolatu du udalak. Partaideek Anoetan egon behar dute errolaturik, eta gaia *Erretratuak* izango da. Argazkiarekin batera esera edo esamolde batek joan beharko du. Gehienez hiru argazki aurkeztu daitezke lehiaketan, eta horretarako epea urriaren 7an amaituko da.

Euskara ikastaroak 'Euskara goxoa, gurea, egiozu hozka!' lelopean

Amasa-Villabonako Udalak euskara herritarren eskura jartzeko kampania abiarazi du

A. Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udala herrian euskara sustatu nahian dabil, eta horretarako, *Euskara goxoa gurea, egiozu hozka!* kampania jarri du abian. Euskara Zerbitzutik azaldu dutenez, «euskara atek zabaltzen dituen gizona da. Lagunena, ikasketena, lanarena eta kulturaren sorkuntza-

ren zerraila zabaltzen duen gizona». Udaleko euskara zerbitzutik herritarren eskura jarri nahi dute hizkuntza, hortaz.

Ikastaroak

Euskara sustatzeko kampaniaren barruan ikastaroak azpimarratu behar dira. Euskara zerbitzutik azaldu dutenez, «talde homogeneoak sortuz gero, ikastaroak Villabonan bertan antolatuko dira».

Dirua aitzakia izan ez dadin, Amasa-Villabonako Udalak diru laguntzak emango ditu. Horrela, udalak matrikularen %75 arte ordainduko du, eta Mintzalaguna programan parte hartuz gero,

%10 gehiago ordainduko du, gehienez ere 400 eurotara iritsiko delarik.

Diru laguntza jaso ahal izateko, ondorengo baldintza hauek bete beharko dira: Amasa-Villabonan erroldatua egotea; gutxienez ikastaroetan %85eko asistentzia izatea; Euskaltegiaren aldeko txostena izatea, errendimenduari dagokionez; eta matrikula ordaindu izatea.

Informazio gehiagorako, edo izena emateko, udaleko Euskara Zerbitzura joan behar da. Telefonoz ere jar daitezke harremanetan, 943 69 35 01 zenbakira deituta. Azkenik, e-maila euskara@villabona.net da.

Publierreportajea → Aitzol udal euskaltegia

Tolosako Aitzol udal euskaltegiak aukera zabala du, eta horietako bat da alfabetatzearena. Pili Otaegi da irakaslea eta pasa den ikasturtean 11 ikasle izan zituen; guztiak ikasteko prest, «oso motibatuta etortzen dira», dio.

Euskaraz bizitzeko hautua

Rebeka Calvo Tolosa

Tolosako Aitzol udal euskaltegiak ibilbide oparoa du. 1982an hasi zen eskolak ematen eta ordutik hona ehunka ikasle pasa dira bere ikasgeletatik euskara ikasteko. Hizkuntza ikasteko haratago doa, hala ere, euskaltegia, euskaraz bizitzeko aukera ere ematen baitu zentroak.

Xanti Larrarte, Carmen Eizmendi, Josean Ariceta, Jose Mari Lopetegui, Rosa Gutierrez, Begoña Gabarain eta Mari Jose Sarasola dira horietako batzuk. Ikasle hauek, beste lau kidearekin batera, pasa den ekainean amaitu zuten alfabetatze ikastaroa. Hori ere badu eta, Aitzolek; euskaraz idazten eta irakurtzen ikasteko eskolak. Pili Otaegi da irakaslea, eta guztiak «oso motibatuta» joaten direla dio. «Normala da motibatuta etortzea. Orokorrean maila honetan, jende helduagoa etortzen da, izan ere, gazteak alfabetatuak daude, eta lanera etortzen dira, ez dute denbora galdu nahi», dio irakasleak.

Alfabetatzeko eskoletara joateko hautua hainbat arrazoiengatik hartu zuten aipatu ikasleek. Xanti Larrartek, esaterako, ez zuen euskaraz idazten ikasteko aukerarik izan eta horregatik animatu zen: «Hitz egiten jakinda ere, idazten haserakoan kontratzen zara ez dakizula hitzak non hasi eta bukatzen diren, batzuetan behintzat. Bi urtetan horretara etortzen gara, falta zailguz hori ikastera».

Carmen Eizmendik ere betidanik hitz egiten du euskaraz, baina lagun artean gaztelania erabili izan du gehiago, «horregatik etorri nintzen Aitzolera, euskaraz idazten eta irakurtzen trebatzeko, eta batez ere, ohitura hartzeko». Gainontzeko ikasleen esperientzia ere antzekoa da, bi salbuespen izan ezik; Begoña Gabarain orain lau urte hasi zen euskaraz ikasten, eta Rosa Gutierrez Granadako (Andaluzia, Espainia) da, eta beraz, orain gutxi hasi zen hau ere, euskara ikasten, baina oso argi du: «Hemen integratzeko euskaraz egitea ezinbestekoa da, eta horregatik hasi nintzen ikasten, euskaraz bizi nahi dudalako».

Euskara eta komunikabideak
Alfabetatze eskolak apiriletik ekainera bitartekoak dira, bi urte dira, eta astean hirutan elkartzen



Ikasturteko azken eskolan ere lan eta lan aritu ziren ikasleak eta Otaegi irakaslea. R. CALVO

dira. Gaika egiten dute lan, hau da, irakasleak gai baten inguruko txosten modukoa ematen die ikasleei, eta hauek txostena irakurtzen ditugu, beste hainbat ariketa egiten dugu, idazlan bat...», azaldu du Aricetak. «Oso eskola

Ikasleek diotenez, oso eskola praktikoak dira eta asko hitz egiten dute

Euskaraz irakurtzeko ohitura hartu dute, nahiz eta batzuetan ez izan erraza

praktikoak dira, asko hitz egiten dute, eta asko ikasten dute. Ni behintzat oso gustura nago ikasi dutenarekin», azaldu du Otaegi irakasleak.

Ikasle eta irakaslearekin bilduta, argi ikusten da giro ona dutela denen artean; asko hitz egiten dute, ez dute iritzia emateko inongo arazorik, eta hori ere antzematen da beren lanetan. «Eztabaida asko izaten ditugu; egunkariko albisteetan inguruan hitz egiten dugu beti eskolak hasi baino lehen, eta horrela ere ikasten da,



Idatzitako irakurtzen dute ikasleek, ondoren ulermena lantzeko. R. CALVO



Ordenadoreen gelan ere hainbat ariketa egiten dute. R. CALVO

guri behintzat asko laguntzen digu», esan du Larrartek. Komunikabideekin, hala ere, hartu eman berezia dute, izan ere, batzuetan idatziak ez dituzte ulertzen. «Izan daiteke hizkuntza jasoa darabiltelako, baina, batez ere, ohitura faltarengatik da. Hori baita zailena: ohiturak aldatu, eta euskaraz bizitzea», dio Gabarainek. «Eskola hauetara etorri aurretik ez genuen euskaraz irakurtzeko saiakera ere egiten, nahiz eta euskaraz jakin, eta orain bai», gaineratu du Jose Mari Lopetegui ikasleak. Zailena, hala ere, deklinabidea, aditzak... dira, eta denetan beldurgarriena, idazlana idaztea dela diote. «Hitz egiterakoan ez zara konturatzen, baina idazlana idazten haserakoan... orduan komerkiak! hor konturatzen zara non dauden zure akatsak, zer esaten duzun ondo, eta zer gaizki... irakasleak idazlanak zuzentzeko errotuladore berdea erabiltzen du, eta beti esaten dut gauza bera: gure idazlanek zuzendu eta gero belazea ematen dutela», gaineratu du Lopetegik.

Akatsak akats, gustura amaitu dute ikasturtea eta ikasleek euskaraz bizitzeko beste urrats bat eman dutela nabarmendu dute ikasleek: «Oso eskola dinamikoak izaten dira eta asko ikasten da, jendea animatu dadila alfabetatu eta dena euskaraz egitera, merezi du eta».

Ibarrako Belabieta kirolegiak prest ditu ikasturte berriko ikastaroak

Urrian hasiko dira ikastaroekin, eta interesatuek izena kirolegian bertan eman beharko dute

Enertiz Maiz Ibarra

Ibarrako Belabieta kirolegiak, ikasturte berrirako eskaintza zabaldu prestatu du. Urrian hasiko diren ikastaroak hauek dira: multifitnes, pilates, hirugarren adinekoentzako gimnasia, yoga, cycling, cycling gazteak, tai-chi, bosu-gap, gimnasia erritmikoa eta pilota. Izena eman nahi duenak kirolegira joan beharko du.

Hirugarren adinekoentzako gimnasia doan izango da, eta astearte eta ostegunetan izango dute, 09:00etan hasita. Pilates ikastaroa, astearte eta ostegunetan izango da 10:00etan, 16:30ean eta 19:30ean. Hiruhilabeteko kostua bazkideek 66,04 eurokoa izango dute, eta bazkide ez direnek 90,98 euro ordaindu beharko dituzte.

Multifitnesen kasuan, eskolak astearte eta ostegunetan 11:00etan eta 18:30ean izango dira, aldiz, astelehen eta asteazkenetan 19:00etan izango da. Bazkideek 66,04 euro eta bazkide ez direnek 90,98 euro ordaindu beharko dute. Yoga, astelehen eta asteazkenetan 11:00etan, eta astearte eta ostegunetan 15:15ean eskainiko dute. Hiruhilabeteko kostua



Besteak beste, pilates egiteko aukera izango da. A. IMAZ

bazkideentzat 64,08 euro izango da, eta bazkide ez direnek yoga egin nahi badute 90,98 euro ordaindu beharko dute.

Cycling eta gazteentzako cyclinga ere eskainiko dute. Cycling gaztea, 12 eta 16 urte artekoen zuzendua dago, eta astearte eta ostegunetan 17:30ean izango da. Helduentzako cycling saioak astelehen eta asteazkenetan 19:00etan eta 20:00etan izango dira. Astearte eta ostegunetan, berriz, eskaintza handiagoa da: 09:30ean, 18:30ean, 19:30ean eta 20:30ean egin ahalko da. Bi saioen kasuan, kostua bera izango da: 66,04 euro bazkideek eta 90,98 euro bazkide ez direnek.

Tai-Chi ikastaroa astelehen eta asteazkenetan 20:00etan izango da. Asteazken eta ostiraletan, berriz, 09:30ean ere egin ahal izango da, eta 64,08 euroko kostua izango du bazkideentzat eta 90,98 euro bazkide ez direnentzat. Bosu-gap

ikastaroa astelehen eta asteazkenetan 15:15ean eta astearte eta ostegunetan 20:30ean izango da. Bazkideek ordaindu beharrekoa 66,04 euro izango da, eta bazkide ez direnentzat 90,98 euro balio du.

Edozein zalantza izanez gero, Belabietako kirolegiarekin harremanetan jarri beharko da, 943 67 15 44 telefono zenbakira deituz edota kirolibarra@yahoo.es helbide elektronikora idatziz.

Gimnasia erritmikoa eta pilota
Gimnasia erritmikoa egin nahi dutenek Belabieta kirol elkartearekin harremanetan jarri beharko dute. 662 12 54 97 edota 657 71 95 33 telefono zenbakietara deitu beharko da.

Pilotan izena eman nahi dutenek, aldiz, Sendi Ekintzako arduradunengana jo beharko dute. Harremanetarako telefonoa 625 707 829 da.

• ibarraldea@hitza.info

Irakurzaleen taldea osatu nahi da

Abaltzisketako eta Orendaingo herritarrekin osatuko da; hilean behin liburu bat irakurri beharko da

E. Maiz Abaltzisketa / Orendain

Ikasturte berriarekin baterako irakurzaleen taldea osatu nahi da, Orendainen. Abaltzisketako herritarrek ere animatu nahi dituzte bertan parte hartzera.

Hilean behin, ordu betez elkartuko da sortu nahi den irakurzaleen taldea. Aldez aurretik adostutako liburua irakurri beharko da bertara joateko. Liburuak sor-

tu ditzaketan sentipen, gogoeta, hausnarketa, emozio eta abar guztiak elkarrekin partekatzeo aukera eskainiko dute.

Ekimena urrian edo azaroan hasi eta maiatzean bukatuko litzateke. Hilean liburu bat irakurri beharko da.

Ikasturte bukaeran afaritxo bat egingo da, eta ondoren zozketa bat egingo da parte hartzaile guztien artean. Saria, Elkar liburu dendan liburuak erosteko txeketa bat izango da.

Interesa duen edonork, 943 65 16 92 telefono zenbakira (Txaro) deitu beharko du hilaren 16tik 26erako tartean. Telefonoa hartzen ez bada, mezu bat uzteko.

• alegaldea@hitza.info

→ Laburrak

Azokan parte hartzeko izena eman behar da

ALEGIA › Alegiako Azoka Berezia hilaren 30ean izango da, 11:00etatik 14:00etara. Postua jarri nahi duten alegiarrek izena eman beharko dute, kultur etxean. Izena emateko azken eguna hilaren 21a izango da.

Siloko plastikoak biltzeko aukera izango da

ABALTZISKETA › Ohi den moduan, baserrietan pilatzen diren plastikoak biltzeko aukera izango da Abaltzisketan. Hilaren 20an, ohiko lekuetan, egingo da siloko plastikoaren bilketa.

Odola emateko aukera izango da hilaren 18an

AMEZKETA › Odola emateko aukera izango da Amezketan, hilaren 18an, asteartean. Kultur etxeko aretoan egongo dira, 18:30etik 20:30era. Odol emaleei eta batez ere, oraindik eman ez dutenei dei egiten diete odola ematera joateko.

Sukaldaritzaren hastapenak ikastaroan izena eman daiteke

Urriaren 22an hasiko da ikastaroa eta hamasei ordukoa izango da; izena Alegiako kultur etxean eman behar da

E. Maiz Alegia

Sukaldaritzaren hastapenak ikastaroa antolatuta du Alegiako Udalak, Aulas Kutxaren laguntzarekin. Urriaren 22an hasiko da ikastaroa, eta azken eguna abenduaren 10ean izango da. Ikastaroa astelehenetan izango da, 18:30etik 20:30era, eta gutzira 16 ordu izango dira. 72 euro ordaindu beharko da.

Izena kultur etxean eman beharko da, eta azken eguna hilaren 17a, astelehena, izango da. Ikastaroan parte hartzen dutenek, eguneroko platerak prestatzeko orduan trebeki moldatzen ikasiko dute. Gainera, haragiak, arrainak eta ongari egokienak bereizten eta erostekak egiten ere ikasiko dute.

Egitarauaren barruan, berriz, haragi bolak saltsan, landare-arroza, ajoarriero bakailaoa, untxi salteatua baratxuriarekin, muskulu crema, ziazberba crema, menièrre oilarrak, bijiliako txitxirioak, arrain pastela, patatak errioxar erara, dilista eltzekaria; porrusalda, arrain-zopa donostiarra, san jakoboa, amuarriana nafar erara, txitxarroa labean panadera patatekin, haragi gisatua eta oilaskoa saltsan prestatzen ikasiko dute.

Arruabarrena ehun onenen artean

Erredakzioa Tolosa

Lara Arruabarrena tenista tolosarra munduko 100 tenista onenen artean sailkatu da, lehen aldiz.

Hain zuzen ere, 91. postuan

dago WTA zerrendan, eta 745 puntu eskuratu ditu. US Openeko estreinako eta lehen kanporaketa irabazi ondoren sartu da tolosarra Top 100 zerrendan.

Bestalde, Uzbekistanen garai-pen berri bat eskuratu zuen Lara

Arruabarrenak, astelehenean. Tashkent txapelketako lehen proban, Jana Cepelova eslovakiarra garaitu zuen bi setetan (6-1 eta 6-2). Txapelketa hori WTA zirkuituaren baitakoa da.


• tolosa@hitza.info

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza egunkariak,

IGANDETARAKO ARGAZKILARIA

behar du

Interesa duzuenok, bidali curriculum: tolosaldean@hitza.info helbide elektronikora



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ibarrako merkataritza besarkatzera gonbidatu dituzte herritarrak

'Besarka ezazu Ibarrako merkataritza' lelopean hainbat ekimen antolatu dituzte merkataritza sustatzeko

Iñigo Terradillos Ibarra

Ibarrako merkataritzak duen «gertutasunaz, goxotasunaz eta garrantziaz» ohartarazi eta merkataritza sustatzea. Helburu horiek ditu Ibarrako Merkatarien elkarteak abiarazi duen *Besarka ezazu Ibarrako merkataritza* kanpainak. Hilaren 23an izango den Ibarrako azoka berezia izango da ekimenaren egun nagusia, sarien zozketak, gaztetxoentzako ekitaldiak eta argazki lehiaketa egingo dituztelarik.

Beste urteetan ez bezala, aurreten bere lekua izango du Ibarrako merkataritzak Ibarra Azoka eta Piparra azokan. Emeterio Arrese kalearen ondoan dagoen jolaslekuan izango dute postua eta txokoa merkatariek. Musika alaiturik egongo da gunea, gaztetxoentzako jolasak eta puzgarriak jarriko dituzte, eta pailazo bat ere izango da txikienen irribarrea eragiten. Horrez gain, «sorpresatxo» bat ere izango dela iragarri dute dendariak.

Gune horretan egingo dute, halaber, sarien zozketa. Irailaren 12tik 22ra Ibarrako Merkatarien elkarteak bazkide diren dendetan egiten diren erosketengatik, eta «merkataria besarkatu ondoren», bezeroak jasotzen duen erosketa txartelaren atzealdean bere izen abizenak idatzi ditzake eta denda bakoitzean egongo den kaxan utzi. Irailaren 22ko eguerdian erosketa txartel guztiak jasoko dituzte, eta hurrengo egunean, hau da, azoka egunean erabiliko dituzte zozketa egiteko. 11:00etatik aurrera hasiko dira zozketa egiten. «Zenbait minuturo txartel bat aterako dugu, eta



Merkatari taldeko hainbat kide, atzo, kanpainaren aurkezpenean. I. TERRADILLOS

sari bezala, denda bakoitzak presatu duen saski edo produktua eskuratuko dute irabazleek», azaldu du Agustin Aduriz Tolosaldea Garatzeneko merkataritza teknikariak. Irabazleen izenak megafonia bidez emango dituzte jakitera goizean zehar, eta zortedunek 15:00ak baino lehen pasa beharko dute Ibarrako Merkataritza elkartearen txokora, euren saria jasotzera.

Argazki lehiaketa

Bestalde, gaztetxoek zuzenduriko argazki lehiaketa ere antolatu dute merkatariek. «Haurrek merkatarien txokoari egin beharko diote argazkia, eta guk hiru argazki politenak aukeratuko ditugu, eta hiru opari banatu». Hiru mailatan banatu dute lehiaketa, adinaren arabera: 5-7 urtekoak, 8-10 urtekoak eta 11-13 urtekoak. Gaztetxoek euren argazkiak ibarrakomerkataritza@gmail.com elkartearen helbidera bidali beharko dute irailaren 26a baino le-

↓ Ibarrako merkataritza sustatzeko ekimenak

■ **Sarien zozketa.** Irailaren 12tik 22ra Ibarrako merkatarien elkartearen barruan dauden dendetan egiten diren erosketengatik jasotako erosketa txartela kaxa batean sartu behar da, izen-abizenekin. Dendek prestaturiko saskiak eta produktuak zozketatuko dituzte irailaren 23ko Ibarra Azoka eta Piparra azoka berezian.

hen, izen-abizenak, adina eta telefono zenbakia jarrita. «Sariak elkarteak pentsatu duen hurrengo kanpainarekin zerikusia izango dute, beraz, urrirra arte sorpresa moduan gordeko dugu oparirina», adierazi du Adurizek.

Besarka ezazu Ibarrako Merkataritza kanpaina urtea bukatu aurretik burutuko diren hiru ekintzetako bat da. Ekimen hauek Ibarrako merkataritza sustatu, eta herritarrak bertan

■ **Dinamizazioa.** Musika, jolasak, puzgarriak, pailazoa eta sorpresa, azoka egunean.

■ **Argazki lehiaketa.** 5-7, 8-10 eta 11-13 urte bitartekoentzat. Azokan merkatariek jarritako guneari eginiko argazkiak ibarramerkataritza@gmail.com era bidali beharko dira, irailaren 26a baino lehen. Hiru sari banatu dituzte.

erostera animatzea dute helburu. «Herriko merkataritza beharrezkoa da herria bizirik mantentzeko, eta herria bizirik mantentzeaz arduratzen da merkatarien elkarrekin ere bai».

Egun 29 merkataria daude elkartearen barruan, eta kopuru hori pixkana handituz joatea da elkartearen xedea, «merkataritza indartzeko ekimenak bultzatzen jarraitzeko».

oibarraldea@hitza.info

Euskal Herria Egunean parte hartzeko deia egin du Bai Euskal Herriarik

Algortan izango da, larunbatean Ibarra, Algorta eta Lizarraren senidetze jaia; txartelak ohiko lekuetan salgai

I. Terradillos Ibarra

Laugarren Euskal Herria Eguna egingo dute larunbat honetan Algortan. Ibarrako Bai Euskal Herriarik ibar tar guztiak animatu ditu Bizkaiko herrian egingo den festan parte hartzera.

Animatzen denak txartelak eskuragai ditu Ibarrako Danon, Sendi Ekintza eta Atari tabernatan eta Tolosako Denaken, 10 euroren truke. Algortara bertaratzeko autobusa ere antolatu dute, eta bertan joateko Sendi Ekintza eta Danonen jarri dituzten zerrandetan jarri behar da izena. Izena emateko unean bertan ordaintzeko eskatu dute antolatzaileek.

Algortan ekitaldi bateriko egitaraua antolatu dute. Harrera egin ostean, Algorta, Lizarra eta Ibarrako herritarrek hamaiketakoa egingo dute, eta ondoren olinpiadak izango dituzte hiru herrien artean. Bazkaldu eta gero olinpiaden finalak jokatuko dituzte, eta ondoren dantza saioak izango dira. Azkenik, gauean, poete musikatua izango da.

Beraz, festarako osagai ugari ditu larunbateko Algortako Euskal Herria Eguna. Hala, Ibarra, Algorta eta Bai Euskal Herriarik bertan parranda eta lo egiteko aukera badela azaldu dute, «furgoneta edota bertako enxeetan».

Ibarra, Lizarra eta Algorta herrien arteko senidetzearen jaia da Euskal Herria Eguna. Ibarrako Bai Euskal Herriarik sortuta, lehena Ibarra egin zen 2009an, Lizarran hurrengo eta 2011n Ibarra ostera.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



≈ **23°**
≈ **15°**

| | |
|-------------|----------|
| GOIZA | EURIA |
| ARRATSALDEA | LAINTUTA |
| BEROENA | 20° |
| HOTZENA | 15° |

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

XVI. Argazki Lehiaketa



TARRAGONAKO ITSASOTIK HARATAGO

Larraulgo Aitor Atxega Ebroko Deltatik itzultzerakoan Tarragonan (Herrialde Katalanak) dagoen Les Ports parke naturalean izan zen uztailean. «Hango herrixka baten ondoan Les Olles izeneko putzuetan bainatu ginen. Tarragonan itsasoa

ederra da, baina mendi inguruak ere ikusgarriak dira. Bertan beroa arrunta denez, ondo estimatuak dituzte bertakoek arroila eta erreka zoragarri hauek», azaldu du. Gogoratu argazkiak thargazkiak@hitza.info-ra bidali behar direla. A.A.

Agurrak



Zorionak!
Onditz.

Gaur 2 urte. Aitak, amak eta aiton-amonak muxu handi bat!

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●● **agurrak**

Agenda

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Ricardo Ugarte eskultorearen obrak izango dira hizpide nagusi gaurko Eskulturasterearen hitzaldi-tailerrean. 20:00etan hasiko da, Topic zentroan, *Eskultoreak bere ideiak eta lanak landuko dituen tailerra* izenburupean. Ugarteren emaztea den Julia Otxoak eskulturen inguruan egindako poemak azalduko ditu eta hitzaldi-tailerren dinamizazioa Box.A elkarteeko kideek egingo dute.

■ **Orexa.** Gipuzkoa Zero Zabor taldeak hitzaldia eskainiko du gaur 19:00etan, udaletxeko ganbaran. «Hondakinen arazoa zertan datzan azalduko dute eta baita Orexak nondik jo beharko lukeen ere», esan dute.

■ **Tolosa.** Larramendi Bizirik auzo elkarteak bilera antolatuko gaurko. 20:00etan bilduko dira Arkaute etxean. Auzoko jaien egitaraua eta lan taldeak, eta lurperatzearen obra izango dira bilerako gaiak. Bilerara deituta daude auzotarrak, saltokiak eta elkarteak.

■ **Tolosa.** Bonberenea Sutan jaialdia egingo dute irailaren 15ean. Sarrerak internetez eskuratu daitezke, sarrerak@bonberenea.com helbidera idatziz, edo Tolosako ondorengo tabernetan: Eguzki, Orbela, Denak eta Mescal. 15 euro balio du eta ondorengo musika taldeak izango dira Bonbereneako futbol zelaian: Glaukoma, Matxura, Berri Txarrak, Gas Drummers eta Gose. Etxe barruan, Olarius eta Brothers rock DJ's.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa: Morant, R. Zaballarreta, 1. Telefonoa: 943 67 38 49. Gauekoa: Morant, R. Zaballarreta, 1.

Telefonoa: 943 67 38 49.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Bertako informazioari bertako produktuak

Egin HITZAREN harpidedun irailaren 3tik urriaren 26ra eta jaso artzai gazta, Idiazabal jatormi izenarekin, OPARI

Hitzaren harpidedunen artean, bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia zozkatuko dugu

Hizuntza: 902 82 02 01 - harpidedun@hitza.info

hitza info

Artizano nekazalariak
Zimurga, 46
HONDARRIBA (Gipuzkoa)
Tel: 943 642 337 / 655 721 834
www.rekatur.net/artizano